

TextReference: euskararako testuingurudun hiztegia

Laburpena

Testuingurudun hiztegiak hitz eta esamoldeen ordainak itzulpen-memoria handietan bilatzeko aukera ematen dute, haien benetako erabileraren adibideak eskainiz testuinguruan. Merkatuan dauden produktuak (Linguee, Reverso Context), baina, hizkuntza gutxi batzuetara mugatzen dira eta, zoritxarrez, euskara ez da horien artean aurkitzen.

Proiektu honek hutsune hori betetzea du xede, euskararako lehendabiziko testuingurudun hiztegia eskainiz erakunde publiko ezberdinek argitaratutako datu irekiei esker. Arreta berezia eskaini zaio interfaze atsegin, erabilerraz eta praktikoa sortzeari, interfaze eleanitza, kontsulten osaketa automatikoa, eta emaitzen egituratze grafikoa eskainiz, besteak beste.

Deskribapena

Hiztegi arruntek ez bezala, testuingurudun hiztegiak ehundaka milioi erreferentziako itzulpen erabiltzen dituzte euren emaitzen iturburu modura. Adibide modura, "sin embargo" esamoldea bilatuta ondorengo emaitza ematen du aurkezten den proiektuak:

TR TextReference_{beta} Gaztelania → Euskara

sin embargo

hala ere 49.19%	baina 11.02%	ordea 9.22%	dena den 5.21%	nolanahi ere 4.36%
halere 3.84%	alabaina 3.50%	dena dela 2.86%	hala 1.84%	berriz 1.62%
bestelakoak 7.34%				

hala ere 49.19%

Sin embargo, ha considerado que ya lo ha conseguido "todo" en el mundo del Triatlón y ahora los "ESTIMULOS y las demandas" de su cabeza y cuerpo hablan de "otros proyectos".

Hala ere, Berasategiren iritziz, triatlóian lor zezakeen "guztia" lortu du, eta orain buruak eta gorputzak "beste proiektu batzuetan lan egitea" eskatzen diote.

Sin embargo, ha subrayado que "la cuestión no es echar la culpa a otro".

Hala ere, esan du kontua ez dela "errua beste bati botatzea".

[Adibide gehiago...](#)

baina 11.02%

Sin embargo, ha añadido que "la maquinaria y las medidas a adoptar en carreteras son cada vez mayores y cada vez se atienden con mayor celeridad.

Administrazioa bai, **baina** herritarrek elurrari aurre egiteko prest ez daudela agertu du: "Gero eta gehiago dira errepideetan hartzen ditugun neurriak eta lanean jarri beharreko makineria eta gero eta arinago egiten diren"

Ikus daitekeenez, ordain posibleak zerrendatzeaz gain, haien erabilera-portzentaia ere erakusten du, eta bakoitzeko hainbat adibide eman.


Modu honetara, testuingurudun hiztegiak hiztegi arrunten osagarri dira, eta haien aldean ondorengo abantailak eskaintzen dituzte:

- Itzulpenen erabilera erreala ezagutzeko aukera hobea, ordain ezberdinen erabilera-portzentaiak eta bakoitzeko hainbat itzulpen-adibide erakutsiz.
- Ordain posibleen erabilera testuinguruan ezagutzeko aukera, haietako bakoitza ze erabilera-kasu konkreturi dagokion eta testu zabalagoan nola txertatzen den ezagutzeko modua eskainiz.
- Esamolde luzeen estaldura hobea: hiztegi arruntak nagusiki hitz bakunetara mugatzen badira ere, testuingurudun hiztegiek esamolde luzeagoak kontsultatzeko aukera eskaintzen dute.
- Bertsio eguneratuagoak: testuingurudun hiztegiak haien atzean dauden itzulpen-memoriekin batera eguneratzen dira, hizkuntza ezberdinetan sartutako termino eta joera berriak azkarrago harrapatuz.
- Terminologia teknikoaren estaldura hobea.

Zoritxarrez, merkatuan dauden testuingurudun hiztegiek (Linguee, Reverso Context) ez dute euskara eskaintzen. Proiektu honek hutsune hori betetzen du, euskararako lehendabiziko testuingurudun hiztegia eskainiz. Horretarako, erakunde publiko ezberdinek argitaratutako datu irekiez baliatzen da, eta orotara 700 mila itzulpen-adibide baino gehiagoren artean bilatzeko aukera eskaintzen du.

Erabilera

Aplikazioaren sarrera-orriak ondorengo itxura dauka:



Ikus daitekeenez, aplikazioak bilatzaile arrunt baten itxura dauka, eta hiru osagai nagusi ditu:

1. Bilaketa-eremua (erdialdean): kontsultatu nahi den hitz ala esamoldea sartzeko eremua.
2. Hiztegi-hautatzailea (bilaketa-eremuaren eskuinaldean): botoi honetan klik eginez hiztegiaren norabidea aukeratzeko menu bat zabaltzen da.
3. Interfazearen hizkuntza-hautatzailea (behealdean): esteka hauek erabiliz interfazearen hizkuntza alda daiteke. Euskara, gaztelania eta ingelesa eskaintzen dira oraingoz, baina etorkizunean aukera hau zabaltzea da asmoa.

Hiztegia hautatzeko botoian klik eginez ondorengo menua zabaltzen da:



TextReference_{beta}

Testuingurudun hiztegia, bilatu milioika itzul

English Español

Gaztelania → Euskara

- Euskara
- Euskara → Gaztelania
- Gaztelania → Euskara**
- Gaztelania
- Gaztelania → Euskara
- Gaztelania → Ingelesa
- Euskara → Gaztelania
- Ingelesa → Gaztelania

Ikus daitekeenez, eskuragarri diren itzulpen-norabide guztien zerrenda erakusten du honek, hizkuntzen arabera multzokaturik. Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara aukerez gain, ingelesa-gaztelania eta gaztelania-ingelesa ere eskaintzen dira momentu honetan, eta etorkizunera begira aukera hau are gehiago zabaltzea da asmoa.

Behin hizkuntza-bikotea aukeratuta, bilaketa-eremuan kontsultatu nahi den hitz ala esamoldea idatzi baino ez da egin behar:



TextReference_{beta}

sin e|


Gaztelania → Euskara

- sin embargo**
- sin efecto
- sin exclusiones
- sin estar
- sin electricidad
- sin empleo
- sin excepción
- sin ella

penen artean

Ikus daitekeenez, idazten hasi orduko sartutako testuarekin bat datozen kontsulta ohikoenak iradokitzen dira.

Enter tekla kontsulta bidali ostean, emaitzen orria erakusten da:



hala ere 49.19%

Sin embargo, ha considerado que ya lo ha conseguido "todo" en el mundo del Triatlón y ahora los "ESTIMULOS y las demandas" de su cabeza y cuerpo hablan de "otros proyectos".

Hala ere, Berasategiren iritzi, triatloian lor zezakeen "guztia" lortu du, eta orain buruak eta gorputzak "beste proiektu batzuetan lan egitea" eskatzen diote.

Sin embargo, ha subrayado que "la cuestión no es echar la culpa a otro".

Hala ere, esan du kontua ez dela "errua beste bati botatzea".

[Adibide gehiago...](#)

baina 11.02%


Sin embargo, ha añadido que "la maquinaria y las medidas a adoptar en carreteras son cada vez mayores y cada vez se atienden con mayor celeridad".

Administrazioa bai, **baina** herritarrek elurrari aurre egiteko prest ez daudela agertu du: "Gero eta gehiago dira errepideetan hartzen ditugun neurriak eta lanean jarri beharreko makineria eta gero eta arinago egiten diren"

Ikus daitekeenez, emaitzen orriak hainbat osagai ditu:

1. Bilaketa-barra (goialdean): barra honek kontsulta berriak egiteko edo hiztegiaren norabidea aldatzeko aukera ematen du.
2. Emaitzen laburpen-kutxa (bilaketa-barraren behean): kutxa honetan topatutako ordainak laburbiltzen dira, bakoitzaren erabilera-portzentaia emanez. Zenbaki gordinez gain, portzentaia barra-diagrama baten bidez irudikatzen dira, banaketa modu grafikoan interpretatzeko baliagarri dena.
3. Emaitza osoak (emaitzen laburpen-kutxaren behean): ordain bakoitzeko, bere erabilera-adibide batzuk erakusten dira.

Hasiera batean ordain bakoitzeko bi adibide baino ez dira erakusten. "Adibide gehiago..." aukera erabiliz, baina, zerrenda hau adibide gehiagotara zabaltzen da:



hala ere 49.19%

Sin embargo, ha considerado que ya lo ha conseguido "todo" en el mundo del Triatlon y ahora los "ESTIMULOS y las demandas" de su cabeza y cuerpo hablan de "otros proyectos".

Hala ere, Berasategiren iritiz, triatloian lor zezakeen "guztia" lortu du, eta orain buruak eta gorputzak "beste proiektu batzuetan lan egitea" eskatzen diote.

Sin embargo, ha subrayado que "la cuestión no es echar la culpa a otro".

Hala ere, esan du kontua ez dela "errua beste bati botatzea".

Sin embargo, este viento ha traído consigo nubes que desde primera hora de la mañana han cubierto los cielos vascos y navarros.

Hala ere, euskal eta nafar zeruak estali dituen hodeiak ekarri ditu haize honek.

El presidente del pp de la CAV ha reconocido, **sin embargo**, que alcanzar un acuerdo con el PNV "no es el ideal" para su partido y, probablemente, tampoco para el PSE-EE.

Hala ere, PPren EAeko presidentek aitortu du EAJrekin akordioa egitea ez dela "onena" alderdiarentzat, ezta PSE-EErentzat ere.

Sin embargo, estos resultados aventuran que no habrá

Hala ere, emaitza horiek agerian utzi dute maiatzaren